

Alde

Alde. Orain inoiz baino gehiago. Eta alboan Mariano Rajoyren aurpegi lehen planoan.

Barre egin genuen, hanka sartze mundiala inondik ere, itzulpen traketzen antologiaren parte da jada. Apropos eginda ere zaila da kontrako mezua hain doi adieraztea. Barre egin genuen, bai, baina baita negar ere, euskarari hizkuntza funtzional gisa ematen dioten garrantziaren beste erakusle bat baino ez baitzen izan.

Behin ekainaren 26a pasata, alabaina, badirudi PP eta Rajoy bera beste zer-bait iragartzen ari zitzaizkigula –uler dezagun “iragarri” etorkizuna aurre-satea bezala, ez baita “alde” polisemia duen hitz bakarra-. Jendeak eman du bere botoa, eta Espainiaren erraiak begi-bistan geratu zaizkigu. Bost axola korruptzioa, bost axola gerra-zikina, bozka baldintzatzen duena zera da: Espainiaren batasun sakrosantua. Espainiaren alde egitea inork Espainiatik alde ez egitea da. Kito.

Gobernua osatu nahian ibili diren hilabeteetan ere, mintzagai nagusietako bat erabakitze eskubidea eta Kataluniako erreferenduma izan da. Atzo marra gorriak zirenak gaur marra gorri-hori-gorriak dira berriro, eta gora guardia zibila eta indar armatuak, eta bihar nork jakin.

Aurreko hauteskunde orokorren bide beretik, aldaketarako nahia non dagoen ikusteko ez da politologo trebea izan behar, horretarako nahikoa da hauteskunde-mapen Estatuko koloreei begiratzea. Euskal Herrian eta Katalunian ere botoaren logika ez dabil baieztapen honetatik aparte: Espainiaren alde egitea edo Espainiatik alde egitea. Alegia, Espainiako Estatua aldatu daitekeela sinestea edo proiektu propioari eustea. Lehenengo aukerari dagokionez, nabaria da asimilazioaren bidetik identitatearen eraikuntzan pauso bat egin dela



Estitxu Garai Artetxe

EHUKO IRAKASLEA

@egarai

Nabaria da asimilazioaren bidetik identitatearen eraikuntzan pauso bat egin dela atzera. Espainia hobetzeko aukeraren bat balego, jendea konforme legoke Espainia “jatorrago” batean? Independentismoak kontuz ibili beharko du diskurtso horrek uzten duen arrastoarekin

atzera. Espainia hobetzeko aukeraren bat balego, jendea konforme legoke Espainia “jatorrago” batean? Independentismoak kontuz ibili beharko du diskurtso horrek uzten duen arrastoa- rekin.

Iragarpenekin jarraituta, alde, alde egitearen alde, bozkatu dute britai-

niarrek. Inkestek une askotan *Brexit*-a aurrean arren, benetan zaila zen sinestea emaitza hori izan zitekeela. Emaitzak emaitza, nire aburuz, erreferenduma aukera galdua izan da. Aukera galdua izan da ezkerreko Europar erabateko noraezean dagoelako. Parada hobezina zen Europar Batasunari buruzko eztabaida serio bat proposatzeko. Ezkerreko mugimenduak erabat zatituta egon dira kanpainen zehar. Batetik, Europar jarraitzearen aldekoek, herrien Europa sozialaren proiektua berreskuratzea posible dela diote, langileen eskubideak Europaren aterkipean hobeto babestuta daudela. Jeremy Corbyn izan da argudio hori baliatu duenetako bat, nahiz eta oso apal eta aho txikiarekin (aurretik beti agertu baita oso kritiko EBrekiko). Beste askok, ordea, TTIP merkataritza akordio neoliberalak, errefuxiatuentzako hesiak, Greziarekin izandako jarrera eta austeritatearen bidetik gizarte babesa kamustea baino ez dute ikusten EBren baitan eta *Brexit*aren alde egin dute. Edonola ere, jakina da ezkerre ez dela gai izan kanpainen eragiteko eta UKIP (Erresuma Batuen Independentziaren Alderdia) eta Boris Johnsonek hauspotutako xenofobia izan da jendea mobilizatzeko argudio behinena.

Eskozian, berriz, beste irizpide baten arabera bozkatu dute. Britainiarrak eskoziarrei mehatxuka ibili ostean independentizatuz gero Europar Batasunetik kanpo geratuko zirela, orain euren erabaki dute alde egitea Eskoziaren borondatearen kontra. Paradoxa txikiak. *Brexit*aren kapitulua ez dago itxita, baina zentzuzkoa da pentsatzea Eskozian erreferendum berriari ateak irekiko dizkiola. Horrek berriro ere mugituko luke herrien erabakitze eskubidearen errota, eta aukera berriak zabaldu daitezke Europako testuinguruan. Zein aldetan harrapatuko ote gaitu? ■